

LAUDIOKO SORGINAK

Behin joan nintzen basora... ikusi nuen sorgina... Sorgin txikiak “baga, biga, hiruga” (BIS)

Bazen behin, Olarte auzoan kobazulo bat, bertan, Laudioko sorginak bizi ziren. Sorginen zuloa zen, sorginzuloa.

Lasai – lasai bizi ziren han, animaliak eta landareak zaintzen.

Behin joan nintzen basora... ikusi nuen sorgina... Sorgin txikiak “baga, biga, hiruga” (BIS)

Sorginak menditik gora eta behera, gora eta behera, ibiltzen ziren. Olartetik Lezeagara, Kamaraka menditik ibiltzen ziren belarrak, hostoak eta loreak biltzen.

Behin joan nintzen basora... ikusi nuen sorgina... Sorgin txikiak “baga, biga, hiruga” (BIS)

Jasotako belar, hosto eta loreak urarekin eta lurrarekin nahasten zituzten. Gero zauriak eta minak sendatzeko.

“Senda mina, putz urdina, sana – sana gure minak ”

Shhh... Olarteko sorginak sendatzen ditu minak (bis)

Behin joan nintzen basora... ikusi nuen sorgina... Sorgin txikiak “baga, biga, hiruga” (BIS)

Sorginak suaren inguruan biltzen ziren dantzan haien erritual magikoak egiten, osagai guztiak lapiko batean nahastu eta hitz magikoak esanda Amalurra esnatzen zuten:

“Baga, biga, hiruga, lauga, bosa, sea... zapa, zoka, berakatza, tronpa” (BIS)

Behin joan nintzen basora... ikusi nuen sorgina... Sorgin txikiak “baga, biga, hiruga” (BIS)

HALA BAZAN EDO EZ BAZAN, SAR DADILA KALABAZAN ETA ATERA DADILA, LAUDIO TXIKIKO
PLAZAN!